

ARAMAko TOKIKO AGENDA 21EKO EKINTZA-PLANA 2015eko EBALUAZIO-EMAITZAK



Gipuzkoako udalerriei TA21eko ekintza-planak ebaluatzeko eta programatzeko zerbitzua

Laguntza teknikoa: ELKARREKIN 21



Tokiko Agenda 21

1992an jaio zen (Rio de Janeiron) Garapen Iraunkorrari buruzko Nazio Batuen goi-mailako gailurrean lortutako hitzarmenaren bidez.


24 urte beranduago, esanguratsua da Gipuzkoako udalerrietan Tokiko Agenda 21ak izan duen garapen-maila.

2016. urtean ebaluatu ditugun ekintza-planak udalerri hauei dagozkie:



Aduna, Alkiza, Arama, Amezketeta, Andoain, Arrasate, Astigarraga, Azpeitia, Deba, Debabarrena (eskualde mailako ekintza-plana), Donostia, Hondarribia, Hernani, Ibarra, Irun, Itsasondo, Ordizia, Orendain, Orexa, Tolosa, Urretxu, Zegama eta Zumarraga.


Nolakoa da gure udalerriko ekintza-plana?



Gipuzkoako TA21arekin alderatuz?

Gure ekintza-planeko ekintza-kopurua antzeko tamaina duten lurraldeko udalerrien batezbestekoarekin alderatuz, **txikiagoa** da.

Ekintzen garapenean **inplikaturik dauden eragile-kopurua** lurraldeko batezbestekoa baino **baxuagoa** da.




Nolakoa izan da ekintza-planaren ezarpen-maila 2015 urtean?

%24 ezarri da bigarren urtean


%10ko hazkundera 2014 -2015 epealdian

Bilakaerak zer adierazten du?

Lortutako ezarpen-maila **baxuagoa da** desiragarria den **helburuko** balioarekiko, baina urte horretan lurraldeko **batezbesteko balioaren ia berdina da**



Nolakoa da ekintzen ezarpen-maila?



2015ean amaituta eta amaitzen dauden ekintza adierazgarri batzuk:

- 2.2.4. Kzguna egokitu ekintza ezberdinak bertan burutu ahal izateko.
- 4.1.5. Herri bide eta baso pisten inbentarioa egin.
- 4.2.1. Internet azkarra izateko aukera ezberdinak aztertzea (zuntz optikoa, ADSLa,).
- 4.5.1. Etxebizitza berriak eraiki bitartean alokairuak bultzatu, herriko gazteak joan ez daitezen.
- 5.2.1. Foru Aldundiak gidatutako garraio planari jarraipena egin.
- 5.4.2. Iriarteko aldapan autoak gorantza joateko debekua bete dadin neurriak hartu: seinaleak, kamerak...
- 5.4.3. Iriarteko garajeetako irteera parean ispilua jarri.
- 6.1.1. Hondakin uren kanalizazioa osatzeko ekimenak aurrera eramatea.
- 6.2.1. Kimaketa hondar eta belarrak biltzeko eremu bat ahalbidetzea.

2015ean hasteko dauden ekintza adierazgarri batzuk:

1.3.1. Herrira bizitzera datozeinei harrera egiteko protokoloa landu

2.2.1. Gazteekin elkarlanean urte sasoi bakoitzeko antolatu beharreko ekintzen zerrenda osatu eta aurrera eraman.

2.2.3. Herri mailako proiektu eta ekintzetan gazteak dinamizatzaile moduan parte-hartu dezaten eragin.

4.3.1. Landa eremua txukun mantentzeko auzolana edo “lan trukea” antolatu.


4.3.2. Landa eremua txukun mantentzeko baserritarrei laguntzak eman, diru poltsa sortuz.

4.3.4. Espezie autoktonoen landaketarako finantziario laguntzak bideratzea.

6.3.1. Kontsumo taldeak sortu, herriko sortzaile eta kontsumitzaileak elkartzeko. Udalak kontsumo talde hauek bultzatu (pizgarriak).

Ildo estrategikoen arabera ezarpen-maila

Ezarpen-maila (%)



2017 urtera begira bultzada beharko luketen helburu estrategikoak:

EKONOMIA IRAUNKORRA ETA ENPLEGUA BULTZATU: %17ko ezarpen-maila lortu du

Honako helburu zehatzez osatuta dago:

- Lanbidera bideratutako prestakuntzaren sustapena
- Herriko lanpostuak sustatu

HERRITARREN ONGIZATEA HOBETU, GIZARTERATZEA LAGUNDU ETA BIZIMODU OSASUNGARRIAK BULTZATU: %18ko ezarpen-maila lortu du

Honako helburu zehatzez osatuta dago:

- Adinekoen bizi kalitatea hobetu, beharrezko zerbitzuak eskainiz
- Oinarrizko zerbitzu eta ekipamenduak antolatu
- Elkarbizitza landu
- Kirola eta bizimodu osasuntsuak bultzatu

LURRALDEA ANTOLAMENDU ETA HIRI PLANGINTZARI DAGOKIONA: %18ko ezarpen-maila lortu du

Honako helburu zehatzez osatuta dago:

- Landa eremuan mantenua indartu
- Herria oinarrizko zerbitzuez hornitzea.
- Ingurune Naturala babestea bultzatu
- Herrigunea txukun mantendu
- Etxebizitza politika herritarren beharretara egokitzea

Partaidetza TA21en baitan

PARTE-HARTZE BIDE
NAGUSIA **GAIKAKO**
HERRI-BATZARRAK
IZAN DIRA,
AGENDA 21EKO
PROZESUTIK
BIDERATUAK

LANDU DIREN GAI
NAGUSIAK:
HERRI BIZITZA,
INGURUMEN
BABESA, LEHEN
SEKTOREA,
MUGIKORTASUNA,
HONDAKINAK,...

PARTE HARTZEN
DUTEN ERAGILEAK:
ORDEZKARI
POLITIKOAK,
TEKNIKARIAK,
ELKARTEAK,
HERRITARRAK.

AGENDA 21EN **5**
PARTAIDETZA-
BILERA

30 PARTE-
HARTZAILE: 15
EMAKUME/
15 GIZON

Informazio gehiagorako **ebaluazio-txosten osoa** kontsulta dezakezu (www.arama.eus web gunean eskuragarri)

The screenshot shows the website for Arama Udala. At the top left is the coat of arms and the text 'ARAMAKO UDALA'. To the right are social media icons and a search bar labeled 'Bilatu...'. Below the navigation menu (UDALA, ZURE ZERBITZURA, HERRIA EZAGUTU, AKTUALITATEA, HARREMANETARAKO) is a banner with a diverse group of people's faces. The main content area features the title 'Agenda 21' and a sub-header 'Aramako Agenda 21eko ekintza planaren berrikuspen prozesua amaitu da'. This is accompanied by a photo of a meeting and a text block explaining the process. A sidebar on the right lists services under 'ZURE ZERBITZURA', with 'Agenda 21' highlighted.

Agenda 21

Aramako Agenda 21eko ekintza planaren berrikuspen prozesua amaitu da

Aramako udala, Agenda 21 prozesuaren barruan, 2006. urtean osoko bilkuran onartu zuen Ekintza Plana garatzen joan da. Aramako Herri Plan honetan jasotzen diren zenbait ekintza aurrera eraman ondoren, ekintza planaren exekuzio mailaren egoera aztertu eta berrikusteko unea iritsi dela pentsatu da Udaletik.

Hausnarketa hau, udalean ezezik herri mailan ere egin behar zela kontutan harturik, ebaluaketa eta berrikusketa prozesu bat eraman da aurrera 2008. urtean zehar.

Udal gobernuak, 4 zinegotzi eta alkatesak osatua, prozesu honen gidaritzea eta jarraipena egin dute. Prozesua udal barruan hasi eta herri batzarretara eraman da.

Ebaluaketa: ekintza plan zaharra ebaluatu eta eraldatzea

- › **Ekintzen exekuzio maila aztertzea:** herri batzarra (apirila): Prozesuari buruzko azalpen orokorrak eman zaizkie herritarrei eta udalean landu ondoren Ekintza Planaren exekuzioaren egoera aurkeztu da.
- › **Ekintzen birformulaketa:** herri batzarra (maiatza): Udalak Ekintza Planeko ekintzen birplanteaketa egin ondoren,

ZURE ZERBITZURA

- Tramiteak
- Idazkaritza
- Gizarte Zerbitzuak
- Bake epaitegia
- Hirigintza
- Euskara
- Agenda 21
- Kontratatu zailagoen profila